



Irabazi iturriak:

Gure proposamenak aurrera egiteko oso garrantzitsuak dira diru sarrerak eta etekinak lortzea eta beraz, gure ideia lantzen egon garenean hori kontuan hartu dugu.

Irabaziko dugun dirua gehien bat beste enpresa edo marka batzuekin egindako aliantzengatik irabaziko dugu, beraz, ordainketa errepikarien bidezko sarrerak izango litzateke. Hau da, modu jarrai batean, hilabetero edo urtero, egiten dizkiguten adostutako diru kopuru zehatz baten ordainketak izango lirateke, adibidez guk haiei egindako iragarkien truke. Gainera, lehengo atal batean esan bezala, bazkideak ere izango ditugu eta hauek ere hilabetero 2'99€ ordainduko dute, beraz diru sarrera mota berdina da. Bazkide hauek, bide batez, online bidez ordaindu beharko du diru kantitate hori.

Horrez gain, lokalean irabaziko genukeen diru guztia ordainketa bakarraren bidezko sarrerak izango lirateke, hots, bezeroak aldi bakarrean egindako ordainketetatik eratorritakoak: bizikleta erreparatzeagatik, gordetzeagatik edo osagarriak erostegatik. Hauek, berriz, kreditu txartel bidez edo txanpon eran ordaintzeko aukera izango lukete.

Hasiera batean, ez dugu bi pertsonen artean adostutako prezioaren inolako ehunekorik irabaziko. Hala ere, etorkizunean proiektua arrakasta lortzen badu, baliteke adostutako prezioaren ehuneko zehatz bat zehaztea gure irabazietarako. Hori egitekotan, bezeroek online bidez ordaindu beharko lukete.

Tarifa ezberdinak aurkituko ditugu, bazkide zaren edo ez zarenaren arabera:

→ Tarifa normala, doakoa (harpidetu-gabeak)

- App-aren erabilpena

→ Tarifa berezia, 2,99€ euro/hilabetero (harpidetuak)

- App-aren erabilpena
- Ibilbide berriak ikusteko aukera herrialde ezberdinetara bidaiatzean
- Zure ibilbideak app-ean ikusgai jartzeko aukera
- %20 deskontua lokalean

